

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

Errotaberri sektoreko hitzarmen-batzarrarekin sinatu beharreko hirigintza- hitzarmena, sektoreko urbanizazio-proiektuko 2. separataren 5. fasean jasotako obrak gauzatu eta finantzatzeko.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zazpi-garren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, Zarauzko Udalak, 2018ko ekainaren 14ko Alkatezaren Dekretuaren bidez, erabaki zuen jendaurrean jartzea Errotaberri sektoreko hitzarmen- batzarra aurkeztutako hirigintzako hitzarmen-proposamena.

Proposamenaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Jendaurreko epea 20 lan eguneko izango da, argitarapen horretatik kontatuta.

Zarauz, 2018ko ekainaren 18a.—Xabier Txurruka Fernandez. alkatea. (4458)

ERANSKINA
HITZARMEN-PROPOSAMENAREN TESTUA

Lehena. 2018ko ekainaren (e)an, Errotaberri sektore industrialeko Kontzertazio Batzordeak eta Zarauzko Udalak, hirigintza egikaritzeko hitzarmena sinatu zuten eta bertan jasota geratu ziren alde bakoitzak zer konpromiso hartuko dituen S.I.32 Errotaberriko urbanizazio-proiektuko 2. separatari dago-kion zatiko urbanizazioa hobeto egiten laguntzeko eta horrela, Zarauzko udalerrian indarrean dagoen plangintza gauzatzeko.

Bigarrena. Hitzarmenaren klausulen artean, laugarrenean (Konpromiso gehigarria) honakoa adierazi zen:

Sektorera iristeko bidea, eta Iñurritza erreka gaineko San Pelaio kaxa. Jarduketa horiek separatako 5. fasean daude jasota.

Obra horien aurrekontua dagoenean, eta ezagutzen denean Foru Aldundiak bere gain obrak finantzatzeko konpromisoa, Zarauzko Udalak, hala balitz, erabakiak hartuko ditu obra horiek egiteko eta finantzatzeko.

Hirugarrena. Udalak Injelan SL-ri esleitu zion Errotaberri sektoreko urbanizazio- proiektuko 2 separatako 5. fasea egokitze-ko proiektua. Proiektua egitearen kostea 8.324,80 €-koa izan zen (BEZ sartuta) eta Udalak ordainduko zuen oso-osorik.

Proiektuak bereizi ditu sektorearen mugaketaren barruan egin beharreko obrak (A bidea) eta sektoretik kanpo daudenak (Frantseskoa/San Pelaio kaxa eta sektorera iristeko bidea), eta zatitu egin du zati bakoitzaren aurrekontua, honakoaren arabera:

— A bidea: 1.373.082,16 €, BEZ barne.

— Frantseskoa/San Pelaio kaxa eta sektorera iristeko bidea: 1.909.174,23 €, BEZ barne.

Laugarrena. Proiektua onartu ondoren, Udalak gestioak hasi zituen Foru Aldundiak finantzia eta ordain dezan 5. faseko obren zati bat: zehazki, sektorera Frantseskua zubitik iristeko bidea eta Iñurritza erreka gaineko San Pelaio kaxa.

AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ

Convenio urbanístico a suscribir con la Junta de Concertación del sector Errotaberri para la ejecución y financiación de las obras comprendidas en la 5.ª fase de la separata n.º 2 del proyecto de urbanización del sector.

De conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional séptima de la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo, el Ayuntamiento de Zarauz, mediante Decreto de Alcaldía de 14 de junio de 2018, acordó exponer al público la propuesta de convenio urbanístico presentada por la Junta de Concertación del sector Errotaberri.

El texto íntegro de la propuesta se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. El período de información pública será de 20 días hábiles contados desde dicha publicación.

Zarauz, a 18 de junio de 2018.—El alcalde, Xabier Txurruka Fernandez. (4458)

ANEXO
TEXTO DE LA PROPUESTA DE CONVENIO

Primero. El de junio de 2018, la Junta de Concertación del sector industrial Errotaberri y el Ayuntamiento de Zarauz, suscribieron un convenio de ejecución urbanística, donde establecieron los compromisos a asumir por las partes para coadyuvar a la mejor realización de la urbanización de la parte relativa a la separata n.º 2 del Proyecto de Urbanización del S.I. 32 Errotaberri, en ejecución del planeamiento en vigor del municipio de Zarauz.

Segundo. Entre las cláusulas del convenio, estaba la cuarta (Compromiso adicional) con el siguiente texto:

Vial de conexión al sector y cajón de San Pelaio sobre el río Iñurritza. Estas actuaciones están incluidas en la 5.ª fase de la separata.

Una vez se tenga el presupuesto de las obras, y se conozca el compromiso que esté dispuesta a asumir la Diputación Foral para su financiación, el Ayuntamiento de Zarauz, adoptará, en su caso, los acuerdos necesarios para ejecutar y financiar dichas obras.

Tercero. El Ayuntamiento encargo la redacción del proyecto de adaptación de la fase 5.ª de la separata n.º 2 del proyecto de urbanización del sector Errotaberri a Injelan SL. El coste de redacción del proyecto fue de 8.324,80 €, IVA incluido que fue abonado en su totalidad por el Ayuntamiento.

El proyecto diferencia las obras incluidas dentro de la delimitación del sector (vial A) y las comprendidas fuera del mismo (cajón de Frantseskoa/San Pelaio y vial de conexión al sector), y desglosa el presupuesto de cada parte, conforme a lo siguiente:

— Vial A: 1.373.082,16 €, IVA incluido.

— Cajón de Frantseskoa/San Pelaio y vial de conexión al sector: 1.909.174,23 €, IVA incluido.

Cuarto. Tras la aprobación del proyecto por el Ayuntamiento, se iniciaron gestiones con la Diputación Foral, para conseguir que ésta financie y abone parte de las obras de la fase 5.ª, en concreto, las correspondientes al vial de conexión al sector desde el puente de Frantseskua, y al cajón de San Pelaio sobre el río Iñurritza.

Horren ondorioz, Diputatuen Kontseiluak, 2018ko maiatzaren 8an egindako bilkuran, onartu zuen hitzarmena sinatzea Zarauzko udalarekin; hitzarmen horretan hartu zuen bere gain «Frantseskoa/San Pelaio kaxa eta sektorera iristeko bidea» atalaren obretatik bere eskumeneko gaiet dagozkien zatiak partzialki finantzatzeko, gehienez ere, 1.243.026,59 €, BEZ barne. Kostuak handiagoak izango balira, ez luke parte hartuko gainerakoan.

Bosgarrena. Bestalde, Udalak akordioa lortu du Nortegas Energía Distribución SAU sozietatearekin gas naturaleko sarea aldatzeko, ezinbestekoa delako urbanizazio-proiektuaren 2. Separatako obrak gauzatzeko. 67.720 €-koa da, BEZ barne, kostu horren estimazioa.

Seigarrena. Zarauzko Udalak eta Kontzertazio Batzordeak hitz eman dute sektorearen urbanizazioa gauzatzeko.

Horregatik, 2018ko ekainaren 28an sinatu zuten hitzarmenean berariaz adierazi zuten bezala, honako konpromiso gehigarriak formalizatzen dituzte.

KLAUSULAK

1. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da alde biek 2018ko ekainaren (e)an sinatu zuten hitzarmenaren laugarren klausulan (Konpromiso gehigarria) adierazitakoa garatzea eta zehaztea.

2. Zarauzko udalaren konpromisoak.

Zarauzko Udalak bere gain hartuko ditu ondorengo konpromisoak, Errotaberriko urbanizazio-proiektuko 2 separataren 5. fasea izenekoan sartuta dauden obrak egin eta finantziatzeari buruz:

a) Berak enkargatu eta ordainduko du oso-osorik Errotaberri sektoreko urbanizazio-proiektuko 2 separataren bosgarren faseko obra-proiektua idazteko kostua, 8.324,80 €-tan baloratua (BEZ sartuta). Konpromiso hori betetzat jotzen dute INJELAN-ek idatzitako proiektuarekin (2017ko abendukoak).

b) Berak ordainduko dio Nortegas Energía Distribución SAU sozietateari, urbanizazio-proiektuaren 2. separatara obrak gauzatzeko ezinbestekoa den gas naturaleko sarea aldatzeak eragindako gastuak. 67.720 €-tan, BEZ barne, baloratu da kostu hori.

c) Berak finantziatuko du Errotaberriko urbanizazio-proiektuko 2. separatara bosgarren fasearen barne dagoen «Frantseskoa/San Pelaio kaxa eta sektorera iristeko bidea» ataleko obraren kostua. Zarauzko Udalak ordaindu beharreko gehienezko ekarpenaren zenbatekoa, 1.900.000,00 eurokoa izango da, BEZ sartuta.

Udalak ordainketak egingo dizkio Hitzarmen Batzarrari egindako obra egiaztatu ahala. Ordainketa bakoitza egingo da dago-kion obra-ziurtagiria eta Hitzarmen-Batzarraren ordain agiria aurkeztu ondoren.

Udalak gastutarako partida nahikoak gaitu ditu 2018 eta 2019 urteko udal aurrekontuen kontura.

3. Hitzarmen-batzarraren konpromisoak.

Kontzertazio Batzordeak ondorengo konpromisoak hartuko ditu bere gain:

a) Berak kontratatuko ditu, osotasunean, Errotaberriko urbanizazio-proiektuko 2 separatara bosgarren fasea. 3.282.256,39 €-koa da, BEZ barne, horren aurrekontua.

b) Berak aurreratuko du Udalak finantziatu beharreko obraren kostua (Frantseskoa/San Pelaio kaxa eta sektorera iristeko bideari dagokiona).

Como resultado de ello, el Consejo de Diputados, en sesión de 8 de mayo de 2018, aprobó suscribir un convenio con el Ayuntamiento de Zarautz en el que asumía el compromiso de financiar parte de las obras del apartado «cajón de Frantseskoa/San Pelaio y vial de conexión al sector» en los capítulos que afectan a materias de su competencia, hasta un máximo de 1.243.026,59 €, IVA incluido, no participando en las desviaciones al alza, si las hubiere.

Quinto. Por otro lado, el Ayuntamiento de Zarautz alcanzó un acuerdo con Nortegas Energía Distribución SAU para la modificación de la red de gas natural, imprescindible para la ejecución de las obras comprendidas en la separata n.º 2 del proyecto de urbanización. Se estima ese coste en la cantidad de 67.720 €, IVA incluido.

Sexto. El Ayuntamiento de Zarautz y la Junta de Concertación están comprometidos en acometer la urbanización del sector.

Por ello, tal y como se previó expresamente en el convenio suscrito el 28 de junio de 2018 formalizan los siguientes compromisos adicionales:

CLÁUSULAS

1.ª Objeto.

El objeto de este convenio de compromisos es desarrollar y concretar lo establecido en la cláusula cuarta (Compromiso adicional) del convenio suscrito por las partes el de junio de 2018.

2. Compromisos del ayuntamiento de Zarautz.

El Ayuntamiento de Zarautz asume a su costa los siguientes compromisos en relación a la redacción de proyectos y financiación de obras comprendidas en la denominada fase 5.ª de la separata n.º 2 del proyecto de urbanización de Errotaberri.

a) El encargo y abono en su totalidad de la redacción del proyecto de obra de la quinta fase de la separata n.º 2 del proyecto de urbanización del sector Errotaberri, valorado en 8.324,80 €, IVA incluido. Este compromiso se da por cumplimentado con el proyecto de INJELAN SL de diciembre de 2017.

b) Abonar a Nortegas Energía Distribución SAU los gastos que correspondan por la modificación de la red de gas natural, imprescindible para la ejecución de las obras comprendidas en la separata n.º 2 del proyecto de urbanización. Se estima ese coste en la cantidad de 67.720 €, IVA incluido.

c) Financiar el coste de la obra correspondiente al apartado «cajón de Frantseskoa/San Pelaio y vial de conexión al sector» contenido en el proyecto de obra de la fase quinta de la separata n.º 2 del proyecto de urbanización de Errotaberri. El importe previsto como aportación máxima a abonar por el Ayuntamiento de Zarautz será el de 1.900.000,00 €, IVA incluido.

El Ayuntamiento realizará los pagos a la Junta de Concertación a medida que se vaya acreditando la obra ejecutada. Cada pago se realizará una vez presentada la certificación de obra correspondiente y el justificante de que ha sido abonada por la Junta de Concertación.

El Ayuntamiento ha habilitado partidas de gasto suficientes a cargo de los presupuestos municipales de 2018 y 2019.

3. Compromisos de la junta de concertación.

La Junta de Concertación asume a su costa los siguientes compromisos:

a) La contratación de las obras de la totalidad de la quinta fase de la separata n.º dos del proyecto de urbanización de Errotaberri. El presupuesto es de 3.282.256,39 €, IVA incluido:

b) El adelanto del coste de la obra a financiar por el Ayuntamiento (la correspondiente al cajón de Frantseskoa/San Pelaio y vial de conexión al sector).

c) Berak finantziatu eta ordainduko ditu gainerako obra (sektoreko A bidea), bai eta Udalak finantziatutako jardueraren kopurua ere, baldin hark hartutako konpromisoak gainditzen baditu.

4. *Segimendu batzordea.*

2018ko ekainaren (e)an sinatutako hitzarmenaren jarraipena egiteko eratu zen (edo eratzeko den) berbera izango da.

5. *Hitzarmenaren izaera administratiboa.*

Hitzarmenak izaera administratiboa du. Ondorioz, antolamendu juridiko administratiboak arautuko du.

6. *Indarraldia, iraupena eta iraungipena.*

Hitzarmenak, hasiera batean, bi urteko iraupena edukiko du, baina, aldeek nahi izanez gero, luzatu ahalko da, baldin hitzartutako konpromisoak ez badira guztiz bete.

Arrazoi hauengatik iraungiko da hitzarmena: bere indarraldia bukatu delako; helburuak guztiz bete direlako; edo aldeetako batek hartutako konpromisoak bete ez eta hitzarmena bukatu delako. Hitzarmena bukatzen bada, aldeek zehaztuko dituzte bukatzeko baldintzak eta egiten ari diren obren ordainketak.

7. *Kontratua berrestea.*

Hitzarmena baliozkoa izateko, Zarauzko Udalak eta Errotaberri sektoreko Kontzertazio Batzordearen Batzar Orokorrak berretsi beharko dute.

c) La financiación y abono del resto de la obra (vial A del sector), así como de la actuación financiada por el Ayuntamiento, en lo que exceda de los compromisos asumidos por éste.

4. *Comisión de seguimiento.*

Será la misma constituida (o a constituir) para el seguimiento del convenio suscrito el de de 2018.

5. *Naturaleza administrativa del convenio.*

El convenio es de naturaleza administrativa. En consecuencia, se registrá por el ordenamiento jurídico administrativo.

6. *Efectos, duración y extinción.*

El convenio tendrá una vigencia inicial de dos años, si bien podrá ser prorrogado por voluntad de las partes, si los compromisos pactados no hubieran sido completamente ejecutados.

El convenio se extinguirá por el transcurso de su vigencia, por el total cumplimiento de sus objetivos, o por resolución debida al incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución.

7. *Ratificación del convenio,*

Para su validez, el convenio habrá de ser ratificado por el Ayuntamiento de Zarautz, y por la Asamblea General de la Junta de Concertación del sector Errotaberri.